



## Bedaio auzoa

# Tolosatik bereiztu eta Amezketara eransteko prozesua

PROZESUAREN AZALPENA ETA  
AZTERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK

2026ko ekaina

**Siadeco**<sup>x</sup>  
ikerketa aplikatua

Berio pasealekua 11, 20018 Donostia

943 31 00 34

[siadeco@siadeco.eus](mailto:siadeco@siadeco.eus)



# Aurkibidea

<b>1. Sarrera .....</b>	<b>3.</b>
<b>2. Prozedura .....</b>	<b>4.</b>
<b>3. Egindako azterketa eta ondorio nagusiak .....</b>	<b>6.</b>
<b>3.1. Azterketa geografikoa, soziodemografikoa eta ondare-azterketa .....</b>	<b>6.</b>
<b>3.2. Zerbitzuen bideragarritasuna eta interes orokorrenzako kalterik eza .....</b>	<b>8.</b>
3.2.1. Eragin ekonomikoa Tolosako Udalean .....	8.
3.2.2. Eragin ekonomikoa Amezketako Udalean .....	9.
3.2.3. Eragin ekonomikoaren ondorio orokorrak .....	9.



## 1. Sarrera

Bedaio, Tolosa udalerriri dagokion 12,1 Km<sup>2</sup>-ko azalera duen landa-auzo bat da. Tolosako udalerriri dagokion arren ez dauka inongo muga geografikorik Tolosako gainerako auzoekin eta hirigunetik 17km-ra dago. Distantzia ez da fisikoa bakarrik, landa-eremuan kokatutako auzoa izanik, Bedaiok ez baitauka zer ikusirik Tolosako hirigunearekin. Ez hirigintza aldetik, ezta arlo ekonomikoan, sozialean eta eguneroko bizi-ohituretan ere.

Bedaio Tolosa udalerritik bereiztu eta Amezketara eransteko nahia adierazi dute bedaiotarrek. Aukerarik naturalena hori dela iruditzen zaie auzoak dituen beharrei modu egokiagoan erantzuteko, udal zerbitzuen antolaketa hobetzeko eta, etorkizunera begira, garapen iraunkor eta integral baterako bide-lerroak eraikitzeke. Gipuzkoako udal barrutiak arautzen dituen 2/2003 Foru Arauak —eta zenbait aldaketa onesten dituen 5/2025 Foru Arauak— ematen du horretarako aukera.

Foru Arauak finkatzen du udalerrri aldaketa gauzatzeko prozedura eta hori da Bedaioren kasuan ere hartu den bide-orria. Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko du udalerrri aldaketaren inguruko azken erabakia.




## 2. Prozedura

Gipuzkoako udal barrutiak arautzen dituen 2/2003 Foru Arauak auzo bat udalerrri batetik bereizi eta beste batera eransteko ezartzen duen prozedura kontuan hartuta, ematen dituen aukeren artean, ekimena bi udalena izatea onetsi da. Horretarako, prozesua martxan jartzeko erabakia bi udaletako udalbatzek hartu behar dute, osoko bilkuretan. Osoko bilkurek udalerrri aldaketari buruzko hasierako erabakia hartu baino lehen, zenbait aurrelan egin dira orain arte:

- [1] Hasierako batzorde bat eratu Bedaioko auzotarren ordezkariarekin, Tolosako eta Amezketako udal gobernuen ordezkariarekin eta bi udaletako idazkariekin.
- [2] 2/2003 Foru Arauak finkatzen dituen azterlanak egin (Siadeco enpresaren bitartez).
- [3] Bi udalak informatu (udalbatzak osatzen dituzten talde politiko guztiak).
- [4] Erakunde arteko Mahaia eratu, udalbatzak osatzen dituzten talde politiko guztiekin eta Bedaioko auzotarren ordezkariarekin (barne kontrasterako, adostasuna lantzeko eta kanpo-komunikazioa planifikatzeko).
- [5] Parte-hartze saioak egin herritarrekin, Bedaion, Tolosan eta Amezketan.
- [6] Ekarpenak egiteko aukera eman Tolosako eta Amezketako herritarrei.

Udaletako osoko bilkurek hasierako erabakia hartzen dutenetik aurrera, hurrengo urratsak emango dira:

1. 2/2003 Foru Arauak eskatzen duen dokumentazioa osatu.
2. Jendaurrean ipini eta erreklamazioei erantzun.
3. Bi udalek behin betiko erabakia onartu (4 hilabeteko epean).
4. Auzotarren iritzi ez loteslea jaso.
5. Espedientea Foru Aldundira igorri.





### 3. Egindako azterketa eta ondorio nagusiak


2/2003 Foru Arauari jarraiki Bedaioren udalerrri aldaketa justifikatzeko osatu beharreko dokumentazioari begira egin diren azterketak (eta bakoitzeko emaitza edo datu nagusiak) azaldu dira atal honetan.

#### 3.1. Azterketa geografikoa, soziodemografikoa eta ondare-azterketa

##### □ Lurralde-mugak eta Tolosako beste auzoekiko biztanle gune banandua izatea

Bedaio auzoak 12 km<sup>2</sup> inguruko azalera du, eta horrek Tolosako udalerrriaren azalera osoaren heren bat inguru hartzen du. Gainera, ez du udalerrriko beste auzoekin muga egiten, eta Tolosako gainerako auzoekiko jarraitutasun geografikorik gabeko biztanle-gune berezia da. Era berean, Bedaioko azalera ia osoa titulartasun pribatukoa da; horrenbestez, auzoa udalerrri batetik bestera igarotzeak ez luke udal-jabetzako lurralde-ondare publikoa galtzea ekarriko, ezta Tolosako udalerrriaren antolaketa fisikoan eta funtzionalean eragin esanguratsurik sortuko ere.

##### 1. irudia. Tolosako eremu osoa (Bedaio hegoaldean)



Iturria: Tolosako Udala.

**Tolosarekiko distantzia eta inguruko beste udalerriekiko kokapena eta hartu-eman soziofuntzionalak.**

Bedaio Tolosako hirigunetik 17 kilometro ingurura dago, eta lurraldeari eta funtzionaltasunari dagokienez lotura estuagoa du Amezketa udalerriarekin. Egoera hori agerian geratzen da bai biztanleen eguneroko bizitzako eta gizarte-harremanetako dinamiketan, bai inguruko zenbait zerbitzu eta ekipamenduren erabileran ere. Hurbiltasun geografikoak eta dauden harreman funtzionalek Bedaio Amezketan integratzea erraztu egiten dute.

**Datu soziodemografikoak**

Bedaio 97 biztanle ditu; Tolosak, berriz, 20.099 biztanle, eta Amezketak, 940. Era berean, 0-14 urte bitarteko haur-populazioaren proportzioa handiagoa da Bedaion (%20), Tolosan eta Amezketan baino (%14).

**Bedaioko ondare publikoa**

Bedaioko udal-jabetzako ondare publikoa Tolosako Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrean jasotako lau higiezinak osatzen dute: beheko Eskola Zaharra, goiko Eskola Zaharra, Abadetxea eta frontoia. Ondorengo irudian ikus daiteke ondasun horien kokapena.

**2. irudia.** Tolosako Udalaren Ondasunen eta Eskubideen Inbentario orokorrean jasota dauden Bedaioko lau eraikinen kokapena.



Iturria: Tolosako Udala

## 3.2. Zerbitzuen bideragarritasuna eta interes orokorrenzako kalterik eza

2/2003 Foru Arauan ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko, Tolosako Udalak gaur egun Bedaion ematen dituen udal-zerbitzuen bideragarritasun ekonomikoa eta operatiboa aztertu dira, baita udalerrri-aldaketak eragindako udalerrien interes orokorretan kalterik eragingo ez duela ere. Horretarako, auzoan ematen diren udal-zerbitzu nagusien balorazio ekonomikoa egin da; besteak beste, hiri-garbiketako lanak, berdeguneen mantentzea, landa- eta baso-bideen kontserbazioa, jai eta kultura-jarduerak, gizarte-zerbitzuak, kale-argiteria, hondakinen kudeaketa, hilerri-zerbitzua, garraio publikoa eta aldizkako inbertsioak aztertu dira. Era berean, udalerrri-aldaketak Tolosako eta Amezketako udalentzat izango lukeen eragin ekonomikoa aztertu da, haren bideragarritasun ekonomikoa zehazteko eta udal-zerbitzuen jarraitutasuna eta kalitatea bermatzen direla egiaztatzeko.

### 3.2.1. Eragin ekonomikoa Tolosako Udalean

Egindako azterketaren arabera, Bedaio Amezketako udalerrian integratzeak Tolosako Udalarentzat urtean 93.008 euroko gastu-murrizketa ekarriko luke. Zenbateko hori auzoan gaur egun ematen diren ohiko zerbitzuak emateari uztearen ondorioz sortuko litzateke (44.530 euro urtean), bai eta auzoari lotutako aldizkako inbertsioak bere gain hartu behar ez izatearen ondorioz ere (48.478 euro urtean).

Aldi berean, urteko diru-sarreretan 121.350 euroko murrizketa gertatuko litzatekeela kalkulatu da. Murrizketa hori, batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpena gutxitzeak eragingo luke (92.150 euro), eta, bestetik, Bedaio bizilagunei lotutako zerga-sarrerak galtzeak (29.200 euro).

Ondorioz, Tolosako Udalarentzat aurreikusitako eragin ekonomiko garbia urteko 28.342 euroko galera izango litzateke. Hala ere, zenbateko hori udalaren urteko diru-sarrera arrunten %0,1 baino txikiagoa da, eta, beraz, oso eragin mugatua izango luke udalaren finantza-egoeran, zerbitzuak emateko gaitasunean eta eguneroko funtzionamenduan. Horrenbestez, ikuspegi ekonomikotik, Bedaio udalerriz aldatzea guztiz bideragarria dela ondoriozta daiteke Tolosako Udalaren kasuan.

### 3.2.2. Eragin ekonomikoa Amezketako Udalean

Egindako azterketaren arabera, Bedaio Amezketako udalerrian integratzeak urtean gutxi gorabehera 39.600 euroko gastu-igoera ekarriko lioke Amezketako Udalari, auzoan ohiko udal-zerbitzuak emateari lotuta. Bestalde, Bedaiori lotutako urteko diru-sarrera arruntak 110.760 eurokoak izango lirateke. Zenbateko hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpenaren (91.652 euro) eta Bedaioko bizilagunei lotutako zerga-sarreraren (19.108 euro) baturaren emaitza da.

Horren ondorioz, Amezketako Udalaren balantze ekonomikoa positiboa izango litzateke, jasoko lituzkeen diru-sarrera arrunt gehigarriak auzoan eman beharreko ohiko zerbitzuen kostua baino nabarmen handiagoak izango liratekeelako. Gastu horiek estali ondoren, Udalak urteko 71.160 euroko soberakin estimatua izango luke. Finantza-gaitasun horri esker, Bedaion egin beharreko inbertsioei aurre egiteko aukera izango luke, administrazio publikoek jarduketa zehatzak finantzatzeko eman ditzaketan dirulaguntza eta laguntzak alde batera utzi gabe.

Horrenbestez, ikuspegi ekonomikoa eta finantzariotik, Bedaio udalerriz aldatzea guztiz bideragarria da Amezketako Udalaren kasuan, eta berme nahikoak eskaintzen ditu Bedaion udal-zerbitzuen jarraitutasuna eta kalitatea ziurtatzeko.

### 3.2.3. Eragin ekonomikoaren ondorio orokorrak

1. **Amezketako Udalaren antolaketa eta funtzionamendu operatiborako bideragarria da udal zerbitzuak Bedaio auzora zabaltzea.**
2. **Zerbitzu horiekin**, Gipuzkoako Udal Barrutiak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 11. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, udalerrri-aldaketa gertatu ondoren, **aurrez Bedaion ematen diren udal zerbitzuen jarraikortasuna eta kalitatea bermatuko lirateke.**
3. **Udalerrri aldaketak, Tolosako Udalaren antolaketa eta funtzionamendu operatiboan ere ez luke eraginik izango, ez baliabide pertsonalei dagokienez, ezta baliabide tekniko eta materialei dagokienez ere.**
4. **Bedaion udalerrri aldaketa ekonomikoki bideragarria da bi udalentsat. Alde batetik, Tolosako Udalean izango lukeen eragin ekonomikoa oso mugatua da, udalaren diru-sarrera arruntaren %0,1 baino txikiagoa. Bestetik, Amezketak jasoko lituzkeen diru-sarrera gehigarriak nahikoa izango dira Bedaion eman beharreko ohiko zerbitzuen kostua estaltzeko eta etorkizuneko inbertsioei aurre egin ahal izateko.**
5. **Horrenbestez, martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak bi udalerrien bideragarritasun ekonomikoarekiko eskatzen duen baldintza betetzen dela ondorioztatzen du SIADECOren azterketak.**